**MOTZAK** MISKI ELKARTEAK APADRINAZIO KANPAINA MARTXAN JARRI DU · **GEHIGARRIA** KILIBARREN
**KIROLA** PARTIDA ERABAKIORRA JOKATUKO DU HAUNDIK MINTXETAN

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko maiatzaren 21a/XII. urtea/489. zkia



# Elgoibartarrak nagusi Euskadiko Soinu Zahar Txapelketan


1,0221suu
iglishvgim Gea codnfilleso
izen ernatea: ekatnaren 25a batho lehen
ILS
HIZKUNTZ
SOLUZIOAK
alerionez,
frantses7z,
ingelesez,
eta italianoz
(mada 17/L¨tral, )
ekainaren letik
uztallaren 30era
(goizez eta
arratsaldez)
70 ordu
(50ordu taldekako
kiaseetan eta
20 multimedian)
informazioa:
tel. 943 744040
faxa 943 741654
e-mail: ils@ils.es
VIDU$TRY
7,ANGIJAGE
litRVICCS


Aurrematrikulazioa
ekainaren 1etik 9ra
Matrikulazioa
uztailaren 1etik 7ra
AZKOITIA
EMAN EGURRA
zure etorkizunari !
Altzarigintzak behar dituen teknikari
kualifikatuak prestatzen ditugu
ZURGINT A IGI ;ZA
LAN IRTEERAK
%95
%10 0
ERDI MAILAKO ZIKLOA
GO1 MAILAKO ZIKLOA
LAN IRTEERAK:
zur eta altzari enpresetan
• Biltegi kontrolatzailea
• Osagaien mekanizatzailea
• Akabera aplikatzailea
LAN IRTEERAK:
zur eta altzari enpresetan
• Programaketan Teknikaria
• Antolamendu Teknikada
• Laborategian Teknikaria
943 85 21 74 • 943 85 22 65
1959tik
Urola
Lanbide Heziketa
www.urola.org
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

tzaileen aukeraketa egiterakoan,



## Klak

Olinpiadak direla eta, udan Greziara bidaiatzeko hegaldien prezioa hirukoiztu egin da. Hori izan zitekeen asteko notizia. Niretzat, ordea, beste zerbaitegatik da Grezia asteko albiste: bart lagun on batek jostailu greziar bat oparitu zidan, Grezian haurrek eta zaharrek soilik erabiltzen duten jostailu bat: beglieria.

Haurrek, haur izateaz lotsatzen hastearekin batera baztertzen omen dute jostailu hau, buruak zuritu eta bizkarrak okertutakoan berriro berreskuratzeko. Jostailu sinplea da: kordel baten punta banatan loturiko bi harri-koskor. Kitto. Jolasteko, harri-koskor bat eutsi eta, kordela hatz artean biratuz, beste harri-koskorra askatu behar da. Jokoaren sekretua, harri bat eutsi orduko bestea aske uztea da. Hala, aske utzitako harritxoa inertziaz bueltatzen da berriro esku ahurrera. Eta klak egiten du orduan.

Harritxoa aske uztean zalantza eginez gero baina, ez du harriak eskura bueltatzeko adina indar hartzen eta atzamar artean korapilatzen da klak hotsik gabe.

(1.)

Nire laguna hogeita bi urteko haurra da, eta hogeita bi urteko agurea ere bai. Badaki ezer ez dela aske uztearren galtzen, itzuli behar dena itzuli egiten dela klak eginez. Lore artifizialak ureztatzen ematen du eguna. Denborarik ez duenak denbora galtzea ezinezkoa dela irribarrez pentsatuz, denborari hatz artetik joaten utziz, aske uzten dena berriro itzuliko denaren esperantzan.

Greziako txiki eta zaharrek klak-klak-klak egiten dute etengabe. Helduek, kordel imaginarioak atzamarretan korapilaturik, lana, bazkaria, erosketak eta yogurtak egiten dituzte.

**Uxue Alberdi**



## Komunikazioaren harian

Informazioari loturik, edo komunikazioaren harian, aritzen garenok "gertakariak" ditugu lanaren oinarria. Hain zuzen ere sarri askotan konturatu naiz gutxi erreparatzen diogula esku artean daukagunari. Esan nahi da, ahoz eta idatziz hedabide batzuek emandakoari lotzen zaizkiola asko, eta maiz, ez diogula horri behar beste garrantzia ematen. A]bistegi eta egunkari, aldizkari eta kazetak. Izen ezberdineko infomtazio-emaileak dira, eta mamia bertsua dute, hainbat koloretan emana. Hau da, hizkuntza baliatuta gertakari baten mila ikuspegi Iantzen dira. Informazioa jasotzeko bideen artean aukera zabala dugu eta horrek gure gustuen arabera aukeratzeko bide ematen digu. Politikari begiratuko dio batek, eta egunkari bat erosiko du. Hizkuntzari erreparatuko dio beste batek, eta beste kazeta bat hartuko du. Irizpideak adina bide daude, gustu adina medio.

Orain gutxi, Irakeko sarraskien inguruan albiste bat manipulatzen ari nintzela ohartu nintzen, euskara jatorrera ekarri nahi nuen hura euskal herritar askorengana iritsiko zela, hori zen asmoa bederen. Eta bat-batean urduritu egin nintzen, uste izan bainuen nire esku zegoela askoren ikusmoldea, iritzia eraikitzeko giltza. Moldatu nuen albistea halako batean, eta ohartu, "eta" baten ordez "edo" bat jartzea erabakigarria gerta zitekeela. Azken batean, "eta" bertsua, "edo" bertsua erabiliko nuen hurrengo albisterako ere. Hau da, berriak berri, albisteak albiste, hizkuntza-kode berarekin ematen ditugu guztiak eta beraz, kolorerik gabeko zer gisa tratatzen. Gertakariak oro hasi eta bukatu egiten dira. Batetik bestera dagoen aldeak ez du gertakaria aldatzen, aipatuaren gainean eraikitzen dugun iritzia aldatzen da.

Azken batean nork bere gustuen araberako albistea jaso dezake, eta horrek, ezinbestean, bat eta bakarra den gizarte hau askotariko egiten du, askotariko-egi agian? Hartzaileak albistegi guztiak entzun beharko lituzke, egunkari guztiak irakurri... baina zertarako, egiaren bila ezinezko korapilo bat askatzen saiatzeko? Gaur ala bihar gertatu, albistegiaren eskaletan, egunkariaren gidoietan tokia dagoen, horixe da kontua. Bestela, bihar edo etzi emango da, eta munduak egun horretan gertatu dela uste izango du.

**Ainhoa Lendinez**

# Kexak

**MOtZ MotZ** ........................................ 8

**gehigarria** ........................................ 13

**kiROlAk** ........................................ 20

2004-V-21

# Urruzunoren
## begi ezkutua

### Ametsak



Norbaitek esan lezake zentzugabea dela goizeko ordu hauetan axotari eragiten egotea, esateko ezer izan ez, eta hurrengo egunean hainbeste egiteko ditudala. Baina nik nahiago dut hau. Eta nahiago nuke esateko askoz ere gehiago izatea, istorio gehiagotan sartu eta istorio gehiago sortzea, hau ohitura bihurtu eta orriak eta orriak kolorezko tintaz zipriztintzea; nire sena gauero paperean zehar barreiatzea inork inoiz irakurriko ez banindu ere. Nahiago nuke koaderno hau hemendik asteetara baino lehenago berriz ere zabalduko banu. Nahigo nuke zabaltzean ordura arte idatzitakoa irakurtzeko baino, zerbait berria idazteko egingo banu. Nahiago nuke nahi izatea eta ahal izatea sinonimo balira. Eta ametsak, amets soil izan beharrean, egi bihur balitezke? Nahigo nuke. Agian guztiok hori amestuko bagenu...

**Unai Villena**

## PILAR IKASTETXEKO GURASOEN EGUNA

Pilar Ikastetxeko guraso elkarte eta irakasleek, eskerrak eman nahi dizkiete ikastetxeko jaian parte hartu zuten guztiei: guraso, ikasle eta batez ere, denda eta lantegi hauei: Mekanosa, Debape inprimategia, Galiza Etxea, Benito harategia, Ger, Cometel, La Caixa, Barola, Condon Vilarchao Pinturak, Astigarraga Kirolak, Lankide Aurrezki Kutxa, Kutxa Elgoibar, Urasandi okinegia, Tefrika, Eroski, Usatorre taberna, Truk taberna, Niko elektronik, Macnizados Ika, Iriondo taberna, Jai-AIai taberna, Carrocerias Urasandi, San Pedro jatetxea, Rosa liburudenda, Dori.

Pila Ikastetxeko Guraso Elkartea

ASTEKARIA
BaRR
en

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
t." 943 74 41 12
Publizitatea:
1r 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
HeIbide informatikoa:
www.topagunea.conVbarren
ARGITAIIMAILEA
E[godarbo Izarra

LAGUIMAREA Sgotbarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa AndOnegii ZUZENDARIA Aster Orbea GEHIGARRIEN ARDLINADUNA Maite Uriarle PUSUZIATEA Amaia Erkizia MAXETATZAILEA Jatone Unanun GEntsrmus Jon Peli Unguen KOLABORATZAILEAX Jasone Olafb, Ainhoa LOCIOSD, Neslor Fuente, PelIo Mendizabei, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Alberriz, Jokin Maninez, Montse Arregi, Juardlo Gorostiza, Kokoe K.E. ela Lirruzuno L.T.. AZALEAD ESAERA liufARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIAIATEOR Gartu Koop. E. TIIIADA 4175 ale LEGE GORDAILUAS9-1.038/92 ISSN 1139-1855

E ELGOIVIRKO JZAKRA

*Elgoillarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kukura Sailak eta Foru Aidundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

ww
kutxa
prarte ekinet
1DANOBAT
Al.111104 KIMAKENTA
G01111
GRUPI> DANCIRAT
ESTARTA
GRUPO DANOBAT

## KEXAK

• Herritar batek azaldu digunez, **Elgoibarko kiroldegia zahartuta dago: "Elgoibarko** kiroldegia zahartuta geratu da, duela 20 urteko diseinua duen eraikina izanik zaharkituta geratu da. Igerilekuko aldagelak ez daude batere ondo, sekulako hezetasuna dago, ez daukate lababorik, eta apal txiki bat soilik dago ispilu txiki baten azpiko aldean. Zenbait ate ez dira ondo ixten, hezetasunagatik handituta daudela dirudi. Kultur Etxea eta Musika Eskolarekin beste alor batzutan ederki egin duten moduan kiroldegian ere berrikuntzak eta diru pixkat gastatzeko ordua da".





• Herritar batek esan digunez, **Urasandi 15 zenbakian dauden zabor kontenedoreetan pila ontzia puskatuta dago: "Aspalditik** dago pila ontzia puskatuta. Alde guztietatik zaborra bereiztu eta birziklatzeko mezuak iristen zaizkigu, baina lan hori egiteko ere, zailtasunak dauzkagu. Kale garbitzailea askotan saiatu izan da pila ontzia bere lekuan jartzen, baina berriz erortzen da, eta pila guztiak lurrean bueltaka egoten dira. Mesedez, dagokionak konpondu dezala".

• Emakume bat etorri zaigu Barrenera, **Udalak Herriko Antzokian antolatzen dituen ikuskizunak oso garestiak direla esanez:** "Izugarri gustatzen zaigu ekitaldi kulturalak ikustera joatea, baina 8 euroko prezioa oso garestia da. Gustura joango ginateke ekitaldi guztietara, baina ezinezkoa da, sekulako dirutza baita. Joan ginen azken aldian, antzokia ez zen bete, eta ziur gaude merkeagoa izango balitz, jende gehiago joango litzatekeela. Udala antolatzailea izanik, sarrerak merkeagoa izan beharko lukeela uste dugu".

## 51A10111

• **Pilar Ikastetxeko zenbait ikasle etorri zaizkigu Pilarreko Guraso Taldea txalotzera: "Joan** zen larunbatean Gurasoen Eguna antolatu zuten, eta oso ondo pasatu genuen. Gainera lan handia egin dute ikastetxea ez ixteko, eta txalo bero bat merezi dute".

• Guraso talde batek **Lourdes Odriozola eta Ion Lizarralderi eskerrak eman nahi dizkie euren lanagatik.**



# HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO

# Eus<araren erabilera

***2004ko urfarrilean jarri zuen marixan Elgoibarko Izarrak Haur eta Gaztetxoenizako Plan Integrala. Orain arte aisialdian zentratu badira batez ere, aurrerantzean aisialdiaz gain beste egitasmo batzuk ere izango dira. Eta, hasteko, bost atal bereiztu ditzakegu Plan Integralean: Abcubdamaika, 3-12 urte bitartekoentzoko aŕsŕaldi taldea; GAZ-T, 12 eta 17 urte bitartekoenizako aisialdi egitasmoa; familiei zuzendutako Kiribilka egitasmoa; haur eta gaztetxoenizako erreforizu programak; eta, azkenik, Gazte Informazio Gunearen zerblizua, Biluzik sexdogi zerbilzuarekin batera. Ikusten duzuen moduan, Elgoibarko Izarrak ahalegin handia egiten ari da herriko haur eta gaztetxoen artean euskararen erabilera normalizaizeko.***

***Lan hau guztia herritarrei eta gaztetxoei hurbiltzeko asmoz, Plan Integrala osaizen duten egitasmo, talde eta zerbitzuak kalera atera nahi ditu Elgoibarko Izarrak. Helburu hauxe du zapatu honetan, hilaren 22an, Plaza Handian ospatuko den Haur eta Gazte Jaiak. (Ikus agendan dagoen taulo). Erreportaie honetan plan integrala osatzen duten 5 atalen xehetasun gehiago aurkituko dituzue.***

## ATXUTXIAMAIKA AISIALDI TALDEA

D Historia: 1995. urtean sortu zen, Elgoibarko Izarra Elkarteak Udalarekin batera antolatu zuen begirale ikastaro (30 bat pertsonek parte hartu zuten) batetik. Urtebete beranduago, sei lagunek zuzendari ikastaroa egin zuten. Taldean mugimendu asko izan da; jende berria sartu, beste batzuk joan...

D Aisialdi Esparrua: 3-11 urte bitarteko haurrentzako eskaintza. Ekintza batzuetan 2 urteko haurrei ere eskaintza egiten zaie.

Helburua: Denbora libre eta jolasetarako azpiegitura eta espazio egokiak lortuz, euskararen ezagutza, erabilera eta motibazioa indartzeko umeek ondo pasa dezaten eskaintza erakargarri bat prestatu. Beste hainbat helburu ere lantzen dituzte; aniztasuna, taldekidetza, etab.

o Antolakuntza eta funtzionamendua: Atxutxiamaika eta GAZ-T Aisialdi talderako arduradun bat dago eta koordinatzaile eta begiraleak adinaren arabera eraturiko lantalde ezberdinetan banatuta daude. Guztira, 29 begirale eta koordinatzailez osatua dago taldea.



Eskaintza: Atxutxiamaika eta GAZ-T Aisialdi taldeak urte guztian zehar eskaintza ezberdinak eskaintzen ditu; udaleku irekiak, negulekuak, udaleku itxiak, irteerak, kultur ekintzak, ikastaroak, etab. Urtero gutxi gorabehera 1.300 aisialdi ordu eskaintzen dituzte.

## --Ti GAZ-T AISIALDI TALDEA

Historia: Atxutxiamaika taldeak, 3-11 urte bitarteko haurrekin soilik egiten du lan eta 11 urte betetzean, haurrak aisialdi eskaintzarik gabe gelditzen zirela konturatu ziren. Gainera, heraiek jarraipen bat eskatzen zieten. 11 urte betetzean, Atxutxi izena txikiekin identifikatzen zutenez, GAZ-T izeneko Aisialdi taldea sortu zuten duela 3-4 urte.

Aisialdi esparrua: 12-16 urte bitarteko gaztetxoak (DBH 1-2-3-4. mailak).

D Antolakuntza eta funtzionamendua: GAZ-T Aisialdi Taldeak 12-16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiten du, baina programaketa osatzerakoan, hainbat ekintza amankomunak izaten dira, baina beste batzutan adinaren araberako banaketa bat egiten dute; alde batetik DBH I-2.mailakoak eta bestetik DBH 3-4.mailakoak.



# PLAN INTEGRALA

# iormalizatzea relburu

1) **K1RIBILKA** (haur eta gurasoentzako programa)

• **Historia:** 2004ko martxoaren 26an jarri zen martxan.

**Helburua:** euskararen familia bidezko transmisioan eragin, 3-8 urte bitarte dituzten haurren familietan euskararen eta euskal giroaren aldeko jarrera bultzatuz.

**Eskainiza:** Haurrei eta hauen guraso eta zaintzaileei zuzendutako jolasak, jokoak, kantak, tailerrak, etab. 15ean behin, udaberrian eta udazkenean, Plaza Handian. Orain arte, bost saio burutu dituzte, hauen artean, Txotxongilo emanaldia, musika eguna eta ipuin eguna.



• **Deskribapena:** egitasmo honetan lau begiralek eta programako maskota den "Kiribil"ek parte hartzen dute Plaza Handira hurbiltzen diren haur eta gurasoentzako ekintzak prestatzen.

## GAZTE INFORMAZIO GUNEA

**Historia:** 2001eko otsailean zabaldu zen.

▶**Helburua:** 15-30 urte bitarteko gazteei zuzenduta, edozein informazio mota lortzeko abiapuntua izatea, doako informazio zentroa izanik.

**Eskaintza:** Alde batetik informazio puntuala eta iraunkorra, honako gaiei buruzkoa bereziki: lanpostuak, ekintzak, diru-laguntzak, heziketa. Bestalde, Ikasleen Nazioarteko Txartela eta Aterpekide Txartela bertan egiten dira.



## Biluzik sexologia zerbitzua

**Historia:** 2001an sortu zen. Gazte Informazio Gunea (GIG) sortu ostean interesgarria iruditu zitzaien tankera honetako gazteentzako zerbitzu bat sortzea, beharrezkoa ikusten genuen. Gazte Informazio Gunearen barruan sortu zen egitasmo hau.

▶**Esparrua:** Gazteentzako 15-30 urte. Dena dela, egiten diren kanpaina asko herritar guztiei zuzenduta daude, adina kontutan izan gabe.

• **Helburua:** Sexualitatea kalera zabaltzea edo hurbiltzea.

**Antolakuntza-tuntzioa:** Asteiehenero zabalik egoren da arratsaldeko 17.00 — 20.00 jendeari harrera egiteko eta beste 3 ordu erabiltzen ditugu prestakuntzarako.

## EUSKARA ERREFORTZUAK

Bi atal bereiztu behar dira: atzerritarrentzako euskara errefortzuak, eta bertakoei zuzenduriko euskara errefortzuak.

### ATZERRITARREI ZUZENDURIKOAK

1 **Historia:** Elgoibarko Izarrak 2003-2004 kurtsoan hartu du atzerritarrei zuzenduriko euskara errefortzuen ardura.

**Helburua:** atzerritik datozen haur eta gaztetxoei euskara ikasten laguntzea.

**Deskribapena:** 6-16 urte bitarteko 19 haur eta gaztetxok eman dute izena aurtengo kurtsoan. Hiru talde daude eta astean hiru orduz jarduten dute euskara ikasten. Jatorri ezberdinetakoak dira: Kolonbia, Brasil, Argentina, Pakistan, Leon, Galizia..,

### BERTAKOEI ZUZENDURIKOAK

▶**Historia:** 2004ko otsailean jarri ziren martxan.

• **Helburua:** euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten Elgoibarko haur eta gaztetxoei laguntzea.

• **Deskribapena:** ikasturte honetan 5-7 urte tarteko haurrei eta 12-14 urte bitarteko gaztetxoei luzatu zaie eskaintza. 25 ikaslerekin jardun dute lanean. 5-7 urte bitarteko haurrek astean 45 min-ko bi saio izan dituzte, eta nagusienek astean ordu eta erdi inguruko saio bakarra izan dute. JoIas, joko, eskulan eta abarren bidez, euskaraz hitz egiterakoan dituzten zailtasunak gainditzen laguntzen saiatu dira.



# Udalak lana lortzeko informazioa jarri du bere webgunean

## Bilalan webgunearen bidez enpleguaren gaineko informazioa eskainiko da doan

Elgoibarko Udalak hitzarmena sinatu berri du Euskalkidetza kooperatiba Elkartearekin, Bilalan webgunearen bidez, elgoibartarrei enpleguaren eta prestakuntzaren inguruko informazioa dohainik eskaintzeko. Beraz, Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordearen laguntzari esker, udalerri honetan erroldatuta dagoen pertsona orok eta bertan kokatuta dauden enpresa guztiek doan erabili ahal izango dituzte Bilalan-en zerbitzuak. Elgoibarko Udalaren web orrian aurkituko dute lotura (www.elgoibar.org).



Bilalan.net lan atari bat da; euskaldunei zuzendutako lan atari bakarra. Atari honen bidez euskara lan munduan bultzatu nahi da. Hartara, enpresek langile euskaldunak bila ditzaten, eta langabetuek euskaraz lan egiteko aukera izan dezaten.

Bilalan euskaraz funtzionatu nahi duten elkarte eta enpresei langile euskaldun egokiak aurkitzen laguntzeko tresna da, eta aldi berean, lan bila dabiltzanei euskaraz funtzionatzen duen enpresa aurkitzeko aukera eskaintzen du. Honekin batera, euskaraz diharduten enpresei bekadun edo praktiketako langileak aurkitzen lagunduko die atari honek.

Bestalde, Udalak enplegua eta prestakuntzari buruz duen eskaintza zabaltzeko beste komunikazio esparru bat izatea nahi du. Horrela, Elgoibarko Udalak egiten dituen lan eskaintzak atari honetan sartuko ditu. Lan munduari dagokionean, Hego Euskal Herriaren eta Iparraldearen arteko informazio-zubi berri bat eraiki nahi du Bilalan-ek. Diasporako euskaldunentzat euskal enpresa eta lan munduari buruzko informazio iturria izateko sortu da Bilalan.net.

## Fatronik enpresa bakarrik bai diren nagusiei laguntzeko metodo berriak lantzen ari da

65 urtetik gorako 16.000 gipuzkoar bakarrik bizi dira. Pertsona hauen bizi kalitatea ahalik eta onena izan dadin, telealarma zerbitzua jarri zen martxan. Bakarrik bizi den jende nagusia edo gaixorik daudenak, eguneko 24 orduetan larrialdi zentroekin konektatzen ditu telealarmak, gure kasuan SOS Deiakekin. Ezbeharren bat gertatuz gero, botoi bat sakatzearekin nahikoa da. Telealarma ekipo honek etxe barrurako bakarrik balio du. Beraz, tele-laguntzarako sistema berriak ikertzen ari dira Fatronik eta Ingema (Matia Gerontologia Institutua). Prototipoa egina dute dagoeneko, eta berrikuntzarik garrantzitsuena, alarma martxan jartzeko ez dela botoirik sakatu behar da. Bestalde, prototipoa kalera ateratzeko aukera izango da, eta pertsona lurrera jausten bada, mugimendua iganiko du.

## Danobaten etorkizuna produktuen berrikuntzan oinarritu behar dela aipatu zuten enpresaren Balzar Orokorrean




Danobat enpresak joan zen apirilaren amaieran ospatu zuen urteko batzar orokorra Herriko Antzokian. Besteak beste, 2003. urteko aurrekontuak errepasatu eta etorkizunerako aurreikuspenak azaldu zituzten. Danobatek 800 langile baino gehiago ditu gaur egun, eta iazko ekitaldian 128 milioi euro fakturatu zituen. 2003ko daturik aipagarrienetariko bat, esportazio alorrean Danobatek izan duen emaitza positiboa izan da. Iaz ere esportazioaren garrantzia nabarmen geratu zen, negozio osoaren %75,74 izatera iritsi baitzen. Esportazio merkatu nagusienak Estatu Batuak, Errusia eta Frantzia izan ziren.

Bestalde, Danobaten etorkizuna produktuen berrikuntzan oinarritu behar dela azaldu zuten. Produktuen berrikuntza 2 ardatz nagusitan oinarritu behar da: produktu berrien garapen eta komertzializazioa alde batetik, eta informazio eta komunikazio teknologien bitartez, gestio prozesuen hobekuntza garatu behar da, bestalde.

# Miski Elkarteak apadrinazio kanpaina jarri du martxan



Miski Elkarteak Perun eginiko lanari jarraipena eman ahal izateko, eta bertako haurrak eskolatzeko asmoz, apadrinazio kanpaina berri bat jarri du martxan, Elgoibar eta inguruko herrietan. Kanpaina honekin, elkarteari lagunduko dioten bazkide berriak lortu nahi dira. Bazkide berriei lau aukera desberdin eskainiko zaizkie: hilean 5 , 10 , 18 edo norberak aukeratutako beste diru kantitate bat ematea.

Bestalde, Peruko haur bat apadrinatzeko aukera izango da, eta emandako diru guztia hartzaileari iritsiko zaio. Aukera desberdinak daude, hau da; hileanl8 euro edo 25 euroko dirulaguntzak eman daitezke. Lehenengo kasuan, haurrari ikasketak egiten eta familiari laguntzea lortuko da, 2. kasuan, aldiz, haurrak eskola pribatu batean ikasteko aukera izango du. Informazio gehiago nahi izanez gero, Gemma Agirregomezkortarekin jarri daiteke harremanetan (943 74 03 31).

## Argia Astekariak harpidetza kanpaina jarri du martxan

Argia Euskal Herriko Astekariak harpidetza kanpaina berria jarri du martxan. Urtebeteko harpidetza kanpaina izango da. Harpidedunak urtean 46 ale jasoko ditu, hilero Larrun pentsamendu aldizkaria, otsailean Euskal Kulturaren Urtekaria, eta urte osoan zehar dosierrak, gidak eta eskaintza bereziak. Kalean baino merkeago lortu ahal izango da informazioa, analisia eta entretenimendua norberaren etxean. Hego Euskal Herrian 118 euro eta Ipar Euskal Herrian 143 euro balio ditu harpidetzak.




## Enpresa Gestioari Buruzko Heziketa Plana jarri du martxan Debegesak

Enpresa txikietan zuzendaritza lanak betetzen dituzten profesionalei zuzendutako Enpresa Gestioari Buruzko Heziketa Plana jarri du martxan Debegesak.

Guztira, 30 ikastaro baino gehiago eskainiko dira maiatza eta abendua bitartean. Gai desberdinak landuko dira, besteak beste, finantza arloa, nazioarteko merkataritza, salmenta teknikak, kalitatea...

Enpresa Gestioari Buruzko Heziketa Planaren barruan dagoen edozein kurtsotan parte hartu nahi dutenek Debegesako 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete (Naiara Ibarrarengatik galdetu).

## 40 lagunek egin zuen EHNA joan zen maiallaren 15ean



Elgoibartarrek EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) egiteko aukera berri bat izan zuten joan zen larunbatean, hilaren 15ean, eta 40 lagunek egin zuten. Dagoeneko 610 lagun inguru dira Elgoibarren EHNA daukatenak. Hala ere, oraindik EHNA ez dutenek bi edo hiru hilabete barru izango dute beste aukera bat, izan ere, uztaila bukaera aldean, berriz ere postu bat janiko dute Plaza Handian.

54511i4
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
Scin Frardzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

tk
Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 v 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



## Petrolioaren prezioa igotzearen ondorioz, sekula baino garestiagoa izango da autoaren gasolina depositoa betetiea

# 13IREPARATEN AL DIOZU PRIMOARI GASOIJNA BOTA BBIAR DUZUNEAN?



### MIREN NOGERO
**37 urte, erizaina**

Ez diot asko begiratzen, behar duena botatzen diot. Kilometro asko egiten ditut egunean, eta derrigorrez bota bihar diot gasolinia. Notizietan entzuten dotenian enteratzen naiz preziva igo dala.

### BENANCIO LEMUS
**37 urte, marinela**

Ez daukat autorik, eta ez diot gasolinaren prezioari erreparatzen. Jendeak igarriko du prezioaren igoera, baina autoa daukanak derrigorrez bota behar du gasolina. Alde horretatik suertea daukat





### JAVIER ASTIGARRAGA
**68 urte, jubilatua**

Nik autoa gutxi erabiltzen dot, eta ez diot prezivari begiratzen. Badakit gora egin dabala, baina autuak gasolinia bihar dabanian bota egiten diot. Oso garesti dauala igartzen da.

### MIREN ALBERDI
**47 urte, begiralea**

Nik ez dot autorik erabiltzen, baina senarrak bai, eta prezioaren igoera izugarri nabari da. Garraio publikoa erabiltzea izan daiteke irtenbidea, baina ez dago lanera joateko egokituta.





### MIREN ETNEBERRIA
23 **urte, administraria**

Ez dakat autorik, oraintxe ari naiz karneta ateratzen eta momentuz ez daukat arazo hori. Hala ere, ez dago irtenbide askorik, gasolinia bihar danian bota egin bihar da. Jendiak berdin-berdin erabiliko du autoa.

### JON LAGO
**32 urte, saltzailea**

Ez, nere lanbidea dela-eta, derrigorrez bota behar diot gasolina autoari. Egunero etortzen naiz Ondarrutik, eta hilabete amaieran igartzen da prezioa igo dala, baina ez dao beste erremediorik.






014.i« EOcidevne4 Ehundaka trofeo

ThAPELAK, GARAIKVRRAK, DoMINAK ETA oMENALDIETARAKo PLAKAK

LAGVNARTEKe TX APELKETAK
HERRi KiRoLIK
JAiAK
EZKoNTZETTLRAKe oReIGARRIAK

Mugikorro: 635 73 86 54
BAWBAR BASERRIA 5an Anholin auzoa (Autopistaran pea(earen ondoan)

**San Roken**
**Etxe berritua salgai (oso polita)**
**kanpoaldera eguzkitsua -**
**ganbara eta garajea**
**Bizitzera sartzeko moduan**

ARBELOA INIMOBILLARIA San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27 / 699 95 30 21

# Musika Eskolako kurtso bukaerako kontzertuak maiatzaren 25etik 28ra ospatuko dira

## Bestalde, Trinitate jaietan dantza saioa eta haurren danborrada izango dira

UUrtero bezala, Inazio Bereziartua Musika EskoIak kurtso bukaerako kontzertuak antolatu ditu. Maiatzaren 25ean hasita, lau emanaldi eskainiko dituzte. Lehenengo hirurak Musika Eskolako auditorioan izango dira eta azkena, maiatzaren 28an Herriko Antzokian. Kontzertu guztiak arratsaldeko 19:30ean hasiko dira. Kontzertu hauetan, ikasleek ikasturte osoan zehar ikasitakoa erakusteko aukera izango dute.

Bestalde, ekainaren 5ean dantza saioa eskainiko dute Plaza Handian arratsaldeko



17:00etan, eta igandean, ekainaren 6an, haurren danborrada izango da, eguerdiko 12:00etan.

**Matrikulazioa zabalik**

lnazio Bereziartua Musika Eskolan matrikulatzeko epea zabalik da dagoeneko. Interesatuek ekainaren 15era arte izango dute bertan matrikulatzeko aukera. Astelehen eta asteazkenetan goizeko 10:00etatik 12:00etara, eta arratsaldez, astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara.

# 18 lagunek hartu zuten parte Ikastolak antolatutako II. Irratsaio Lehiaketan

Elgoibarko Udalak, Danobatek eta Radio Eibarrek babestuta, joan zen ostiralean, maiatzaren l4an, ospatu zen Ikastola Irratian, Debabarranako II. Irratsaio Lehiaketa. 9 taldetan banatuta, 18 lagunek hartu zuten parte lehiaketan. Talde bakoitzak gai libre bat aukeratuta, 15 minutuko emanaldia eskaini zuen. Lehiaketa amaitu ostean, epaimahaiak irabazleen izenak jakinarazi zituen. Hona hemen irabazleen zerrenda:

**Esataritza saria:** Lierni Maguregi eta Amaia De Castro. "Ligatzearen Artea".

**Gidoi saria:** Itsaso Alguacil eta Ane Odria. "Plaza Giroa".

**Eleanitz saria:** lria Vicente eta Olatz Uriguena. "Tratu Txarrak",

3 irratsaio hauek Radio Eibar Cadena Ser irratian emitituko dira.

**Partaidetza sariak:** Sarituak izan ez ziren partaide guztien artean lau euskarazko hiztegi elektroniko zozketatu ziren.



# Antton Irusta ipuin kontalaria izan zen Udal liburutegian

Aurtengo Irakurketa Suspertzeko Programaren barnean, Antton Irusta ipuin kontalariak bi saio eskaini zituen joan zen ostegunean, hilaren 13an, Udal Liburutegian. Lehenengo saioan 3 eta 5 urte bitarteko umeak izan ziren, eta bigarrengoan, 6tik 8 urtera bitartekoak. Liburutegiko arduradunek esan digutenez, sekula baino ume gehiago bildu ziren. Guztira 100 umetik gora izan ziren bi saioetan. Aurrerantzean, ez da beste saiorik egongo, eguraldi onarekin zaila izaten baita honelako ekitaldiak antolatzea. Kurtso berriarekin batera hasiko dira ekitaldi berriak.



# Gurasoen Eguna ospatu zuten Pilarren hilaren 15ean

Urtero bezala, Gurasoen Eguna ospatu zuten joan zen larunbatean, hilaren 15ean Pilar Ikastetxean. Goizean goiz hasita, gaztelu puzgarriak hartu zuten lekua ikastetxekoa patioan. Eguerdian bazkaria egin zuten, eta arratsaldean jolasak izan zituzten. Eguraldi bikaina egin zuen, eta sekulako giroa izan zen egun osoan zehar Pilar Ikastetxean.



# Softlan-en azkena ezagutzen al duzu?

[www.esoftlan.com](http://www.esoftlan.com)




13.000 produktuen
datuak on-line kontsultatu

z Zuzenean erosi prezio
merkeagoak lortuz

z Zure fakturak eta bidalketak berrikusi
Zure kontuko informazio
guztia kontsultatu

## Honetaz aparte...

Antonio Arrillaga, 1
Tel. 943 74 81 05 • Faxa: 943 74 82 28
E-posta: info@softlan.biz
Web orria: http://www.softlan.biz

**Softlen**

**analisia & programazioa**

# KiliBaRRen



## In Leike Elkarteko Aisialdi Taldeak antolatuta joku olinpikoak izan ziren Mendaroko frontoian

### Lau begirale eta 30 ume aritu ziren guztira



* ' apo 2004 egitasmoarekin jarraituz, hirugarren eki- Trau[illegible]a antolatu zuen joan zen larunbatean, maiatzaren 15ean, In Leike Elkarteko Aisialdi Taldeak. Arratsaldeko 16:30ean hasita, iluntzeko 18:30ak aldera arte, Mendaroko ume mordoa bildu ziren Goitati frontoian, nor baino nor, euskal joku olinpikoetan lehiatzeko. Lau begirale eta 30 ume inguru aritu ziren guztira. Hiru taldetan banatuta, urdinak, berdeak eta txuriak, mota guztietako jokoetan hartu zuten parte. Besteak beste, sokatira, oskol biltzea, globoak puskatzea... izan ziren umeek gainditu beharreko probak.

Mendaroko Aisialdi Taldekoek, hilean behin ekitaldi bat antolatzen dute Trikixapo 2004 egitasmoaren barnean. Ekainean, Santa Kutzera irteera egingo dute. Begiraleek esan digutenez, beraien asmoa gurasoak ere animatzea da. Denak batera Santa Kutzera igo, eta bertan euskal jolasak eginez, egun osoa pasatzea.

## Ekainaren 5etik 7ra Trinitate Jaiak

Mendarozabal auzoko Jai Batzordeak, UdaIaren laguntzaz antolatuta, datorren ekainaren 5etik 7ra ospatuko dira Trinitate Jaiak. Txapligu hotsek emango diete hasiera ekainaren 5ean. Zuhaitza landatzea, trikipoteoa eta DJ emanaldia izango dira, besteak beste egun honetan. Trinitate Egunean (ekainak 6), txistulariekin kalejira, meza nagusia, Mendaroko Eliz Abesbatzaren kantaldia eta herri kirolak izango dira. Azkenik, ekainaren 7an, Trinitate Txiki Egunean bukatuko dira festak, Egun honetan, ikastolako urneen bertso emanaldia, herri bazkaria, eta trikitilari eta bertsolarien jaialdia izango da.



## 81 urteko faldolarekin bataiatutako mendaroarra



Iazko azaroaren 13an jaio zen Unai Sanchez Mendaron, eta duela 81 urte bere aitonak erabilitako faldoi berberarekin bataiatu zuten joan zen martxoaren 19an. Hiru belaunaldi desberdin ezagutu ditu faldoi honek: Santos Sanchez izan zen duela 81 urte lehenengoa, ondoren bere seme- alabak, eta azkenik bilobak. Guztira 18 pertsona desberdin bataiatu dira faldoi berberarekin.

## Udako Euskal Unibertsitatera joateko dirulaguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak 33 ikastaro eskainiko ditu aurten, Horietako batzuk Biarritzen izango dira, uztailaren 5etik 9ra, eta beste batzuk Iruflean, uztailaren 19tik 23ra bitartean. 1kastaroez gain, bi astetan zehar makina bat praktika, jardunaldi eta emanaldi izango dira.
Mendaroko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko diru1aguntza emango die, beka gisa, ikastaroetan parte hartu nahi duten herriko langabetu eta ikasleei. Ikastaroetan parte hartzeko izen emateko epea ekainaren 27an bukatuko da. Ilcastaroei buruzko informazio gehiago www.ueu.org webgunean aurki daiteke.

## Musika Eskolako kontzertua

Datorren ostiralean, maiatzaren 28an, Mendaroko Musika Eskolako en kurtso bukaerako kontzertua izango da. Gaueko 21:30eart hasita, musika instr̃umentu desberdinez osatutako kantak entzuteko aukera izango da Azpilgoetako elizan. Musika Eskolako ikasle gehienek hartuko dute parte, eta besteak beste, flauta, tronpeta, saxofoia, txistua, gitarra eta piano doinuak izango dira protagonista.

## uMaitatzeko berdinak" erakusketa

Gehitu Elkartearen eskutik, "Maitatzeko berdinak" argazki erakusketa dago ikusgai udaletxeko Arno-Otaerre aretoan. Emakume nahiz gizonezkoen rnaitatzeko moduak islatzen dituen argazki bilduma interesgarri batek osatzen du erakusketa. Datorren maiatzaren 23a izango da erakusketa bisitatzeko azken eguna.



**KiliBaRRen**
Mendaroko Udalaren diruiaguntzarekin argitaratua

GORKA SARASOLA, Mendaroko ospitaleko gerentea

# 12 urtetan ospitalea finkatu

*Mendaroko ospitaleak 12 urte beteko ditu ekainean. **Gipuzkoako** ospitalerik gazteena da, eta azkenaldian etengabe entzun dugu txiki geratu dela. Albiste hau aitzaki hartuta, bertara jo dugu, eta Gorka Sarasola Ospitaleko Gerentearekin hitz egiteko aukera izan dugu. Lau urte pasatxo daramatza ospitaleko zuzendcrritzan, efa egia dela aitortu digu; Mendaroko Ospitalaren arazo nagusia ohe falfa dela. Debabarrena Eskualdeko gaixo guztiak hcrrtzen ditu bertan, Mallabitik hasita Mutrikuraino, efa askotan Ondarrutik ere etortzen omen dira. Gorka Sarasolak, ospitalearen egungo egoera eta etorkizunari begira dauzkafen asmoak azaldu dizkigu.*



**12 urte pasa dira, zein balorazio egiten duzue?**
Oso ona. Hasieran duda handia zegoen, ez gintuzten ezagutzen, baina Mendaroko Ospitaleak bere lekua hartu du. Zerbitzu ona eskaintzen dugu, eta jendea normalean gustura ateratzen da hemendik.

**Maiatzaren 31n erretzea debekatuko duzue...**
Bai, Tabakorik Gabeko Egun Intemazionala ospatzen da egun horretan, eta egun hori aprobetxatuko dugu, bertan erretzea behin betirako debekatzeko. Legez, Osasun Zentroetan erretzea debekatua dago, eta nire ustez, ospitale batean ez litzateke erre beharko. Osasuna zaintzen den zentro batean, ezin da osasuna kendu. Mendaroko Ospitalea txikia da, eta ez dago arazorik momentu batean kanpora atera eta kalean erretzeko. Hauts ontziak jarriko dira kanpoan, eta erre nahi duenak ospitaletik atera beharko du. Langileriak 7 ordu pasatu behar ditu bertan, eta batzuk arazoak izango dituzte, baina moldatu egin beharko dute. Urte asko behar izan ditugu, arazo zaila da, baina beharrezkoa.

## "Ospitalaren arazorik handiena ohe falta da"

**Zein da ospitalearen egoera?**
Ospitalea txiki geratu zaigu. 102 ohe ditugu, eta egun askotan ohe guztiak beteta izaten ditugu. Biztanleria gero eta nagusiagoa da, eta beraien behar garrantzitsuena kontsulta medikoak dira. Adineko pertsonek patologia bat baino gehiago izaten dute normalean, eta ingresuak denbora luzerako izaten dira askotan. Zenbait kasutan gaixoak beste ospitale batzuetara bidali behar izan ditugu. Trastorno handia izaten da gaixoarentzat eta familiakoentzat, baina modurik egokienean egiten saiatzen gara.

**Zer egiten da oherik ez dagoenean urgentziaren bat iristen bada?**
Urgentzien gunean beste 8 ohe daude, erreanimazio gelan 9 ohe daude, eta ingresurik gabeko zirugia gunean beste 14 ohe daude, beraz, istripuren bat edo beste urgentziaren bat dagoenean ohe horiek erabiltzen dira.

**Nola handitu daiteke ospitalea?**
Ospitale barruan aldaketak eginez, ohe kopuru gehiago sartu daitezke, baina aukera zaila da. Eraikina handitu daiteke, edo gaixoa etxean ospitalizatzearen aukera izan daiteke irtenbide posible bat. Operatu eta bi edo hiru eguneko jarraipena behar duten gaixoak etxera bidali eta medikua bertara bidaltzean datza honek. Ez litzateke behin betirako irtenbidea izango, baina eraikina handitu bitartean, harnabi ohe inguru irabaziko ditugu. Urrian saiatuko gara metodo hau martxan j artzen. Eskualdeko Ospitaleen artean Iehenengoak izango gara sistema hau erabiltzen.

# zerbitzu oso ona eshintzen du"

**Nola erantzungo dute gaixoek metodo berri honen aurrean?**
Batzuk ziur oso ondo hartuko dutela. Jende askok nahiago du etxean egotea, bere senideekin. Beste batzuk ordea, seguruago sentituko dira ospitalean egonik. Oso ondo azaldu behar zaie metodoa gaixoei eta beren senideei. Gainera, baldintza minimo batzuk bete beharko dira honetarako: gaixoa zainduko duen norbaitekin bizitzea, eta etxea ere ospitale moduan egokitzeko modukoa izatea, gutxienez. Gaixoari eskainitako atentzioak ez du kalitaterik galduko.

## "Malatzaren 31n ospitalean errelzea debekatuko da"

**Zeintzuk izan dira azken berrikuntzak?**
Hiru kirofano genituen eta 2002. urtean laugarrena eraiki genuen. Urtero 5000 operazio inguru izaten ditugula kontuan izanik, asko lagundu digu. Bestalde, Ingresurik Gabeko Zirugia Gunea egin dugu. 14 ohe ditu, eta egunean bertan operatu eta etxera bidaltzeko moduan dauden gaixoei irtenbide egokiena emateko gunea da.

**Aurreikusten al duzue epe laburrean beste berrikuntzarik?**
Bai. Urgentzien gunea erabat aldatuko dugu. Proiektua onartuta dago, eta datorren urtean hasiko gara urgentzietan obrak egiten. Azken urteotan asko handitu da urgentzia kopurua, eta moldatu egin behar dugu. Obrak irauten duen artean, arazoak izango ditugu, baina beharrezkoa da.

**Langileria ere, handitu behar izango zenuten, ezta?**
Bai, hala da. Ospitalea hobetu ahala, langile gehiago kontratatu behar dira. Gaur egun 365 langile gaude. 2001ean 15 langile gutxiago genituen. Seinale ona da.

**Hala ere, zain egoteko lisiak oso luzeak dira...**
Bai, guk bost hilabete azpitik ditugu, baina zain dagoenarentzat Iuze egiten da. Zain egoteko listetaz hitz egiten dugunean, itxaron dezakeen jendeari buruz ari gara. Urgentziazko gaixoak berehala operatzen dira, lehentasunezkoak 15 egunetan, eta gainontzekoak tokia dagoenean. Espezialitatearen arabera, gehiago edo gutxiago itxaron behar izaten da. Traumatologia eta oftalmoIogian daude Iista luzeenak. Kontsultetarako ere zerrenda luzeak daude, baina kontuan izan behar da, patologiaren arabera gaixo bakoitza bebin baino gehiagotan atenditu behar dela. Orokotrean oso ondo atenditzen dugula uste dut.

**Etorkizunari begira, zein da lehenengo eginbeharra?**
Ingresorik behar ez duten operazioak bultzatzen saiatuko gara, hau da, egun berean operatu eta gaixoa etxera bidaltzea. Artroskopiak ezagunak dira, eta modu horretan, beste mota askotako operazioak egin daitezke urologia, urdaila... Aspektu honetan oso aurreratuta gaude, eskualdeko ospitale gazteena garela kontuan izanik.

**Zein abantaila dauzkate honelako operazioek?**
Gaixoarentzat hobeagoa da. Ez du ingresurik behar, errekuperazioa errazagoa da, eta oheak libre geratzen zaizkigu.

**Zein zerbitzu eskaintzen ditu ospitaleak?**
Oinarrizko zirugia guztia egiten dugu: zirugia orokorra, traumatologia, urologia, tokoginekologia, otorrinolaringologia eta oftalmologia. Kardiozirugia eta neurozirugia kenduta, gainontzeko guztia.

### MENDAROKO OSPITALAREN DATUAK:

Ospitaleari dagokion biztanlegoa:
Ohe kopurua: 102
Kirotanoak: 4
Langileak: 365
(Medikuak 92, erizainak , gainuntzekoa zuzendaritza eta manteinuko langileak)
Urgentziak: 28.1.
Ingresoak: /.000
Kontsultak: 135.000
Erditzeak: 474
Operazioak: 5.000

### 2004Ko AURREKONTUA

Mendaroko Ospitaleak 24.38' euroko (4000 milioi pezeta) aurrekontua dauka 2004. urterako.
Gorka Sarasolak azaldu digunez, azken 5 urteetan 000 milioitan handitu da ospitaleko aurrekontua.
Aurrekontu honetaz gain, beste 700.06 euro inguru (120.000.000 milioi pezeta) aurreikusten dira aparailu berriak erosi eta beste hainbat inbertsiotarako.

# Erretratu zaharra



ilabete honetako erretratu zaharra **Maialen Olazabalek** laga digu. Argazkian agertzen direnak Mendaroko Ikastolako umeak dira. Kurtso bukaerako jaialdia ospatu zuten egun honetan Garagartzako Plazan. Urte osoan zehar Ikastolan ikasitako dantza eta abestiak eskaini zituzten. Ikusten den bezala, ez da umorerik falta, eta ikustera hurbiltzen ziren guraso eta herritarrek ere, oso ondo pasatzen zuten.

# informazioa

## Farmazia okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 21 | Yudego | Yudego |
| 22 | Bidasolo | Zabaleta |
| 23 | Zabaleta | Zabaleta |
| 24 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 25 | Ibañez | Ibañez |
| 26 | Bidasolo | Bidasolo |
| 27 | Etxeberria (Sonto Ano koleanj | Etxeberria |
| 28 | Fernandez | Fernandez |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Te1: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
**23** igandea Ibarrenea

## EuskoTren

DONOSTIA-BILBO
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Donosiia 0,..b.EA | 5.45 | 06.15... | 20.45 |
| Elgoihar | 07.02 | 08.02.. | 2202 |

jaiegunetan 7.-15eari hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

## EuskoTren

TOBUSAI:

BILBO-DONOSTIA
Egunero

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bilbo | 06:00 | 7.00... | 20.00 |
| Elgoihar | 07.23 | 08.23... | 21.23 |

* jaiegurmaa 8.00etan basiko dira

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08,25 09.25 10.25... 21.25

## ELGOIBAR

SIGMA iso ARMAGA

| L SIGMA | - ARRIAGA | ARRIAGA - S | |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbulatorioa ............................ 943 03 26 10
Planning-a ................................ 943 74 29 50
Alkoholiko Anoninnoak ................... 943 74 03 85
0 YA (anbulantzta) ....................... 943 46 46 22
Gurutze Gorria ........................... 943 74 38 64
Mendaroko Ospi1alea ..................... 943 03 28 00
Odol Emaileak ............................ 943 74 39 36

**BARRAIOAK**

Eusko Trenbideak ......................... 943 74 04 42
PESA (Eibar) ............................. 902 10 12 10
Taxi geltokia ............................ 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua ".................... 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua .................... 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ........................ 943 74 21 58
Mendaroko Udala .......................... 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ....................... 943 74 10 08
Udaletxea ................................ 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............................. 943 74 13 94

**RESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ........................ 943 74 16 26
Kiroldegia ............................... 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ......................... 943 74 30 88
Liburutegia .............................. 943 74 35 25
Musika Eskola ............................ 943 74 21 45
Mintxeta ................................. 943 74 43 15
Parrokia ................................. 943 74 08 42
Postetxea ................................ 943 74 15 47
Gaztetxea ................................ 943 74 35 72
Gazte Informazioa ........................ 943 74 14 61

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza ....................... 943 74 02 96
Zaharren Biltokia ........................ 943 74 05 26
Eguneko Zentroa .......................... 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola .............................. 943 74 21 41
HHI (EPA) ................................ 943 74 08 80
Herri Eskola ............................. 943 74 08 79
1,M 1-1 .................................. 943 74 41 32
I nstitutua
Arreiturre .... 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) .......................... 943 74 80 19
I kastola ................................. 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ......................... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN .................................. 943 74 41 12
El Diario Vasco .......................... 943 74 40 73
El Correo Español ........................ 943 74 10 82
Zazpiki irratia .......................... 943 74 34 74
Egunkaria ................................ 943 30 02 28
Gara ..................................... 943 31 69 99

2004-V-21

# Maria Ferreiro txapeldun eta Amaia Astigarraga txapeldunorde Euskadiko Soinu Zahar Txapelketaren finalean

## Sei elgoibartarrek hartu zuten parte Legazpiko finalean

Joan den igandean izan zen Neskatxena edo Euskadiko Soinu Zahar Txapelketako finala Legazpin. Soinu zaharrak antzinako doinuak dira eta dantzari bakoitzak, bere trebezia erakutsiz, doinu bakoitzari araututa dauden urratsak jartzen dizkio.

Aurrez, ligaxka batean parte hartu zuten dantzariek, Urretxu, Oiartzun, Elgoibar, Beasain eta Lezon aritu ziren. Bakoitzak, zozketaz, A sailekoak (7-11 urte) 4 herritan eta B sailekoak (11-15 urte) 3 herritan parte hartu dute. Lortutako emaitzen arabera, Iehen hamabostak sailkatu ziren Legazpiko finalerako. Sei elgoibartarrek lortu zuten sailkapena, hiruk A sailean eta beste hiruk B sailean. Finalean, Hondarribia, Lezo, Oiartzun, Donostia, Ordizia eta Elgoibarko dantzariek parte hartu zuten.

Elgoibartarrak ezin hobeto aritu ziren eta emaitza paregabeak lortu zituzten, batez ere gaztetxoenek. Maria Ferreirok A saileko txapelketa irabazi zuen eta bera dugu Euskadiko Soinu Zahar txapeldun berria. Amaia Astigarraga sailkatu zen bigarren postuan eta Ainhoa Agirre 6. postuan. B sailean, berriz, Maitane Moreda 7. postuan sailkatu zen, 9. postuan Dorleta Fernandez eta 10. postuan Miren Ramos. A sailetik B sailera salto handia dagoela nabarmendu behar da, dantzak zailagoak eta maila oso altua baitago bigarrenean.



*Legazpiko finalean parte hartu zuten dantzariak.*

Hortaz sei dantzarien ernaitzak dira txalogarriak.

### Lan ordu askoren saria

Irakasleek eta dantzariek beraiek aipatutakoaren arabera, "Ikasturte hasieratik bukaerara lan handia egin dugu. Ordu asko sartu ditugu lanean, urduritasunak, une ilunak, gorabeherak eta haserreak ere pasa ditugu, baina esfortzuak bere saria izan du azkenean". Sei dantzari bikain hauek bat datoz taula gaineko bakardadea dela gogorrena aipatzerakoan, "une zaila da benetan, eszenatoki gainera bakarrik igotzea, epaimahaikideak aurrean eta ikusle denak guri begira daudela. Zaila da doinua hasi eta dantzan akatsik egin gabe eta maila emanez aritzea. Askotan urduritasunak huts egiteak dakartza eta bakarrik egotean nabarmenagoak dira. Eta ezin ahaztu aurreko egunetako ezin egona!". Bukaeran merezi izan duen lana izan da, ordea, eta zorionik beroenak ematen dizkiegu dantzari fin hauei.



*Maria Ferreiro (ezIcerrean) eta Amaia Astigarraga.*

ilarkizano
San Frantvsko, 14 — TeL 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

JOSE ;ft
(Txema)
Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

=

—„, ,L1111 11L114taiii112111111,6 ld 1, {LQ/

## Damian Muñozen dantza ikuskizuna Sandor Marai idazle hungariarraren eleberri batean oinarrituta dago



Damian Muñoz dantza konpainia ohituta dago Herriko Antzokiko oholtza zapaltzera, ez baita Elgoibarrera etortzen den lehen aldia, eta ziurrenik ez da azkena ere izango. Oraingoan "Olel6s" izeneko lanarekin datorkigu. Maitzaren 28an, barixakuan, izango da lan berri hau ikusteko aukera 22:15etik aurrera.

Jordi Cortesek eta Damian Muñozek elkarlanean osatu dute azken ikuskizun honen koreografia eta Sandor Marai idazle hungariarraren "El tiltimo eneuentro" eleberrian aurkitu dute mugimenduak sortzeko inspirazioa. Istorioa gaua egun bilakatzen den unean kokatzen da, animalia basatiek eta ehiztariek horren gustuko duten *une* misteriotsuan. Bi gizon dira protagonistak, biak ala biak ehiztaria eta harrapakina, unearen arabera. Bien arteko norgehiagoka itzela da eta aurkariaren armadura gainditzeak hainbeste urtetan egindako galderei erantzunak aurkitzea modukoa da. Eszenatoki gainean ikus daitekeen argitasuna galderen erantzunen metafora dira. Mundu itxi batean argia da sartzeko ahalegina egiten duen bakarra, egunsentia bailitzan. Bitxia dirudien arren, hungarieraz "tiles" eta "rileMs" hitzek erro eta esanahi antzerakoa izanagatik, oso esanahi ezberdinak dituzte, hilketa eta muxua, alegia.

## "Plazaratze Eguna" jaialdia maiatzaren 29an

Elgoibarko Herri Eskolak "Plazaratze Eguna" jaialdia antolatu du, maiatzaren 29an, zapatuan Plaza Handian. Goizeko 11:30etik 14:00etara bitartean eskulanak egiteko, aurpegiak margotzeko, batidoak, marrazki libreak eta beste hainbat gauza egiteko aukera izango da. Kamisetak eta beste hainbat arropa erosteko denda izango da eta baita taberna ere salda, txorizoa eta tortillarekin. Trikitixa doinuek alaituko dute

## Irrati zaletuen lehiaketa

Elgoibarko EILT-GARE Irrati Zaletu Elkarteak irrati zaletuentzako 24 orduko lehiaketa antolatu du. Maitzaren 22an, zapatuan, hasiko da lehiaketa eguerdiko 1 2:00etan eta domeka eguerdira arte, 12:00ak arte, iraungo du. AM bandako 36. kanala erabili beharko da eta ahalik eta kontaktu gehien egitea da lehiaketaren helburua. Karakaten jarriko dute antena. Irratirako materiala eta diplomak jasoko dituzte irabazleek.




4ory CONON VILFIRCHO

DEKORAZIOA

Kanpo ebba/rveko eslaldura
Zethen koinkaziaa
ra· egui, aluminro, P.V.C.
oroktgra

San Rake, 7 behea
Pal. Diato - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 maduloa
TeL 943 749 578



V111RAll
*PEDRO PEREZ BERISTAIN*
Xixilion, 2 . 3.sotoa e 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUN1TATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# ligako azken bi partiduetatik bat irabazi behar du Haundik Hirugarren Mailara igotzeko

## Zapatu honetan partidu erabakiorra jokatuko du Reai Union B taidearen aurka

Ligako azken jardunaldiak eskura laga dio hirugarren mailara igotzeko aukera Haundiri. Elgoibartarrek 1 eta 4 irabazi zuten Hondarribian eta Beriok 2 eta 0 galdu zuen Lesakan. Hortaz, bi jardunaldiren faltan 3 puntu ateratzen dizkio C.D. Elgoibarrek bigarren sailkatuari, Beriori, alegia. Partidu bat irabaztearekin nahikoa izango du igoera lortzeko. 1.,ehen aukera bihar, hilak 22, izango dute Mintxetan (17:30). Real Union B taldearen aurka irabaziz gero, matematikoki lortuko lukete lehen postua eta datorren urtean Hirugarren Mailan jokatzeko txartela. Aukera paregabea aprobetxatzeko, inoiz baino beharrezkoagoa izango da jarraitzaileen babesa. Giroa berotzeko Mausitxa Txaranga kontratatu du Klub Deportibo Elgoibarko zuzendaritzak eta zapatu goizetik hasiko dira herriko kaleak girotzen. Honez gain, egun hori ate




irekien eguna izendatu du klubak eta ez da sarrerarik kobratuko. Garaipena lortuz gero, partidu amaieran hasiko lirateke ospakizunak. Bi kamioren gainean zeharkatuko lituzkete kaleak jokalariek eta jarraitzailerik fidelenek. Udaletxea obretan dagoenez ezingo lirateke balkoira igo, baina eszenatoki bat egokitzea pentsatu dute. Dena dela, garaipena lortuko ez balitz, bigarren aukera bat izango lukete ligako azken partiduan.

**Beste taldeak**

Haundi-az gain C.D Elgoibarko gainontzeko taldeek ere denboraldi bikaina burutu dute eta partidu erabakigarriak jokatuko dituzte asteburuan. Kadeteek mailaz igotzea lortu dute, baina Gipuzkoako Txapelketa irabazteko aukera dute zapatu honetan goizeko 11:30ean Zumaian jokatuko den partiduan Hamaika Bat taldeari irabaziz gero. Nesken taldeak, berriz, Gipuzkoako Kopako finalaurrekoa jokatuko du Aliorgan, zapatuan 11:30ean. Bi partida hauek ikustera joateko autobusak jarri ditu klubak. Azkenik, jubenilek Euskal Ligara igotzeko aukera dute. Eibar taldearengandik puntu bakarrera daude liga bukatzeko partidu baten faltan, eta eibartarrek partidu zaila dute Zarauztarren aurka. Elgoibartarrek zapatuan honetan jokatuko dute Mintxetan 15:30ean Urolaren aurka.

### Eskualdeko VII. Futbol 7 tompelketarako izen ematea

Irekita dago Eskualdeko VII. Futbol 7 Txapelketan parte hartzeko izena emateko epea. Izenak maiatzaren 27ra arte eman ahal izango dira, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian zein Eibarko Ipurua kiroldegian. Izan ere, Elgoibarko eta Eibarko Kirol Patronatuak dira txapelketaren antolatzaileak. Txapelketa ekainaren 5etik uztailaren lgra izango da.

Izena ematerakoan, 50 ordaindu beharko dira. Antolatzaileek, txapelketan parte hartu nahi duten talde kopurua mugatu nahirik, ez dituzte 32 talde baino gehiago onartuko. Beraz, interesatuek azkar ibili beharko dute. Partidu guztiak Unbeko zelaian izango dira, aurtengo udan, Mintxetako belar artifiziala aldatzeko obrak egingo baitituzte.

# Madrileko Maratoian parte hartu zuen Xabier Elustondo elgoibartarrak




abier Elustondo elgoibartarrak adrileko maratoian parte hartu zuen joan zen apirilaren 25ean. Ia 13.000 lasterkari elkartu ziren irteeran eta Xabierrek 7105. postuan amaitu zuen, 42 kilometro eta 195 metroak burutzeko lau ordu eta 25 minutuko denbora behar izan zuelarik. Azaroan hasi zela maratoia prestatzen aipatu digu, "ahal izan dodanian 50 minutuko korrika saioak egiten ahalegindu naiz egunero eta asteburuetan hiru orduko saio luzetxoagoak". San Lorentzo bailarako Maiorta baserrikoa da Xabier eta baserritar txapela buru gainean jantzita eramatearen ohitura berreskuratze aldera, urtebete daramala berau buru gainean janzten adierazi digu. Maratoia ere txapela buruan zuela egin zuen, noski.

## Ermittiako kobazulora irteera antolatu du leizarpe Espeleologi Taldeak maiatzaren 29an

**Leizarpe** Espeleologi Taldearen eskutik Ermittiako kobazuloak ezagutzeko aukera izango da datorren maiatzaren 29an, zapatuan. Espeleologiaren mundua gazte elgoibartarrei gerturatzea eta honekin batera lurpeko paisaia ikusgarriak ezagutaraztea da irteera honen helburua. Kobazulo honek 10 kilometro baino gehiago ditu ezagunak, baina oraindik asko geratzen da ezagutzeko. Leizarpekoek leizeak, zirrikituak, estalaktitak, lokatsa, areto ikusgarriak, leku estuak eta katazuto txiki eta dibertigarri bat erakutsiko dizkiete animatzen diren guztiei. Leizarpek Santa Klaran duen lokaletik abiatuko dira kobazuloetarantz goizeko 10:00etan. Irteera honetan parte hartzeko, berriz, maiatzaren 24a baino lehen eman behar da izena taldeak duen egoitzara joz



arratsaldez edo honako telefonora deituz: 666 537 088. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da 14 urte baino gehiago izatea eta norberak eraman beharko ditu frontala, bazkaria eta aldatzeko arropak.

## Iker Txurruka pilotaria ETB-Kantxa torneoan jokaUen ari da



Lagunak Pilota Eskolako Iker Txurruka pilotaria ETB-Kantxa lau eta erdiko pilota txapelketa entzutetsuan parte hartzen ari da. Afizionatu mailako txapelketarik garrantzitsuenetakoa da Elgetako frontoian jokatzen den hau, eta Txurruka elgoibartarra kadete mailan ari da jokatzen. Lau eta erdiko txapelketa batean jokatzen duen estreinako aldia izan arren, primeran moldatu zen lehen partiduan eta 22 eta 18 irabazi zion Aurtenetxe nafarrari. Asteburu honetan jokatuko du bigarren partidua Ikerrek. Ia noraino ailegatzeko gai den.

## Eskola Kirolak Eskalada Jaialdia antolatu du maiatzaren 22an

Eskola Kirolaren barnean, Eskalada Jaialdia izango da zapatu honetan, maiatzaren 22an, Olaizaga kiroldegiko rokodromoan. Goizeko 10:30etatik aurrera benjamin mailako gaztetxoen txanda izango da eta 11:30etatik 13:00etara, berriz, alebinak eta infantak arituko dira paretan gora.

## Spinning Maratolan izena emateko epea maiatzaren 25ean amailzen da

Udal Kirol Patronatuak antolatu duen Spinning Maratoia maiatzaren 29an, zapatuan izango da, Olaizaga Kiroldegian. Parte hartu nahi izanez gero, izen emateko epea maiatzaren 25ean amaituko da. Bost orduko iraupena izango du saioak, 18:00etatik 23:00ak arte eta ekitaldia girotzeko eta saioetako irakasleek prestatutako erritmoei laguntzeko, perkusio talde bat arituko da, Gorka Mujika elgoibartarraren zuzendaritzapean.

## EMAITZAK

### Futbola

Hondarribia **4-Haundi 1 (Pref.)**
Elgoibar **2** - Ostadar 1 **(1. erreg.)**
Mariño **2**- Elgoibar **4 (Jub.)**
Axular 0 - Elgoibar **3 (Kad.)**
Elgoibar 1 - R. Sociedad **8 (Inl.)**
Elgoibar **4** Almen **0 (Neskak)**

### Esku pilota

**Euskadiko Udaberri** Saria
Lagunak **14** - Aretxabalela 18 **(Inf.)**
**Debarroko Txapelketa**
**Bergara 16** - Lagunak **22 (Jub.)**
Lagunak **22** - **Eskoriatza 19 (Jub.)**
Lagunak **22** - Eibar **6 (Kad.)**
Lagunak **22** - Eibar 10 **(Nag.)**
**Lagunak Txapelkela**
I. Ruiz **18** - J. Tabira **10 (Ben).)**
**A. Gurrutxaga 18- M.** Arrieta **7 (Benj.)**
**A. Gabilondo 18** - U. Ruiz **0 (Benj.)**
I. Rojo 18 - M. Agirrebeña **17 (Benj.)**
M. Gurrutxaga 18- A. Astigarraga **15 (Benj.)**

### Eskubaloia

Usurbil **30 -Tecnomeca** Elg. 13 **(Kad. mut.)**
Arrasate **12** - Pagoaga Elg. **28 (Kad. nesk.)**
Urola **28** - Pneumax Elg. **22 (Jub. mut.)**
Tecnifuelle Elg. **29**- Egia Jogers **23 (Sen, mut.)**

### Idarraga kafeak 7. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 03/04**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- M. Tarragual | 50 |
| 2- Arenas | 46 |
| 3- Arrasate | 40 |
| 4- Guinea | 35 |
| 5- M. Gonzalez | 34 |
| 6- I. Gonzalez | 34 |
| 7- D. Rodriguez | 33 |
| 8- Javi Gomez | 31 |
| 9- Elkoro | 28 |
| 10- Igartua | 26 |
| 11- Navarrete | 20 |
| 12- Leo | 14 |
| 13- izagirre | 13 |
| 14- Jakes | 11 |
| 15- Martija | 10 |

## AGENDA

### Eskubaloia, Kiroldegian

**BarIxakua, 21**
**19:30** Pagoaga Elg. - Bergara **(Kad. nesk.)**
**Zapatua, 22**
**17:30** Cometel Elg. - Bera-Bera **(Jub. nesk.)**
**19:00** ANTT Softlan Elg. Pulpo **(Sen. mut.)**
**Domekia, 23**
**12:30** Tecnomeca Elg. - Egia Jogers **(Kad.mt.)**

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 22**
**15:30** Elgoibar- Urola **(Jub.)**
**17:30** Haundi Real Union **(Pref.)**

# CIC urrak

**oa.zte**
informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es*
*Tel. 943 741 461*
*Ordutegia:*
*Asteartetik-ostiralera: 16:30-20:00*



* Zorionak Oier1 Datorren eguenean lau urte beleko dozuz. Patxo haundi bat Unairen eta etxeko danon partez.



Zorionak Egoitz, hilaren 15ean, 6 urte egin zenituelako. Familiako guztien eta bereziki, irati eta Arkaitzen partez.



o Zorionak Landert zure lehen urtebetetzean ondo pasa. Muxu handi bat ikastolako lagunixoen pariez.



Zorionak **Tamara,** hilaren 24an, 8 urte egingo dittizuktko. Guraso eta ahizpa Aidaren partez. Ondo pasa ezazu.



Zorionak Elsa printzeso zure 5. unebetetzeon. Muxu bat denon partez.



♦ Zorionak Leire, hilaren 19an, 3 urte egin zenivelako. Etxekoen partez.



• Zorionak **Sara, gaur,** hilak 21, 7 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.



Zorionak Garaziri, gaur, hilak 21, urtebete egin duelako. Familiakoen partez.



Zorionak Mariari, maiatzaren 20an, 12 urte bete zituelako. Anaia Andoni eta familiako guztien partez muxu handi bot.



Azkenean heldu da mataizaren 23a. 7 urte egingo diluzun egunean, zorionak etxeko "suso" txikiari. Ondo pasa igandeon!



♦ Zorionak **Jesus Mari Aizpuruari,** hilaren **1Ban, 45 urte bete** zituelako. Emaztearen, eta Ainara eta Miriam iloben partez.



♦ Zorionak Markosi, hilaren 20an, 4 urte bete zituelako. Gurasoen, anaia Asier, aiton-amona, eta osaba izeben partez.



♦ Zorionak **pareja!** Kamara eta polizia guztiak Madrilera begira dauden bittartian, gu libre izango gara zuen boda-eguna nahi bezela difrutatzeko! Ondo-ondo pasau!



Zorionak **Ainhoa eta Carlokri,** 9 eta 5 urte bete dituztelako. Gurasoen, etxekoen eta bereziki, Jonen partez.



* Zorionak Jesus Mari eta Samiari, hilaren 22on, 5 urte egingo dituzuelako ezkonduta.



♦ Zorionak maiatzeko loreei. Amatxo eta senide guztien partez.



Zorionak eta muxu bana, etxeko gizonen partez.

♦ Zorionak Irabwri, Angel ela Judithen partez.

## BEKAK

**Nazioarteko Programak**

kutxak, Gaztekutxa zerbitzuaren bitartez, dirulaguntzak prestatu ditu Sokrates-Erasmus, Sokrates-Comenius eta Leonardo programetan parte hartuko duten ikasleentzat. Laguntzen oinarri eta eskabide-orriak www.gaztekutxa.net helbidean. Epea: ekainak 10

**Atzerriko ikasketak**

**Eusko Jaurlaritzak, unibertsitateko goi-mailako tituludunei atzerrian, irakaskuntza arautu bitartez, gai interesgarrietan espezializazioa ahalbidetzea helburu duen beken programa prestatu** du. Epea: ekainak 14

**Europako gaiak**

Eusko Jaurlaritzak Europako Gaien eta Eskualde arteko Lankidetzaren arloetan profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzera zuzendutako bekak antolatu ditu. Epea: ekainak 15

**Graduatu ondoko** ikasketak **Britainia Handian**

La Caixa Fundazioak Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntzazentroetan ikasketak zabaltzeko, 1968 urteaz geroztik jaiotako lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzat 10 beka eskaintzen ditu. Egin beharreko ikasketa-maila graduatu ondokoa da: masterra, doktoregoa edota doktorego ondorengo ikerketa, Beken iraupena 10 hilabetekoa izango da gutxi gora-behera (ikasturte oso bat gehienez ere), 885 libra esterlina hileko. Informazio guztia lortzeko: www.estudios.lacaixa.es. Epea: ekainak 30

## JARDUERAK

**Auzolandegiak**

Frantziako REMPART kultur ondarearen zainketarako boluntarioen elkarteak, monumentuen zaharberritzearekin zerikusia duten iraupen ezberdineko auzolandegiak antolatzen ditu Frantzian, 18 urtetik gorako pertsonentzat. Informazio guztia www.rempart.com web orrian. Epea: plazak bete arte

## LEMAKETAK

**Publizitate iragarkiak**

Donostiako Udalak publizitate iragarkien story board-en 2. lehiaketa antolatu du. Publizitateiragarki irabazlea, emakumeek pairatzen duten genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazio kanpainaren parte izango da. Bertara 16 urtetik gorako pertsonek, banaka nahiz taldeka, aurkez ditzakete euren lanak. 1.804 euroko saria. Epea: ekainak 25




## 21BARIXAKUA

**18:30 DANOBAT ENPRESAREN 50. URTEURRENA**
Bazkide sortzaileei omenaldia
Herriko Antzokian

**19:00 SARI BANAKETA**
Elgoibarko Izarra Idatz Lehiaketa
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea

**22:00 BIDEO FORUM-A**
Filma: "Lucia y el sexo"
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## 22 ZAPATUA

**10:30 ESKALADA JAIALDIA**
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea: Eskola Kirola

## 23 DOMEKIA

06:00 **ELGOIBARKO MENDI ITZULIA**
Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkartea

11:00 **EIBARK0 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**

**12:30 EIBARKO UDAL MUSIKA**

## 25 MARTITZENA

**19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUAK**
Musika Eskolako Auditorioan

**19:30 APARTHEID-AREN AURKAKO MOBILIZAZIOA**
Plaza Handian
Antolatzailea: Einbiou Herri PIataforma

## 26 EGUAZTENA

19:30 **I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUAK**
Musika Eskolako Auditorioan

19:30 **EUSKARARI BURUZKO BATZARRA**
Kultur Etxean
Antolatzailea: Ezker Abertzalea

## 27 EGUENA

**19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUAK**
Musika Eskolako Auditorioan

## 28 BARIXAKUA

19:30 **I. BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLAKO KURTSO BUKAERAKO KONTZERTUAK**
Herriko Antzokian

22:15 **DANTZA IKUSKIZUNA**

Taldea: Damian Muñoz Dantza

rima

41

## "The Company"

**Zuzendaria: Robert Altman.**
**Antzezleak: Neve Campbell, Malcom McDowell.**
The Company, berez, dantzari eta dantzarien lanari eskainitako oda dultu. Zuzendaria gaian hasiberria izanik, filmaren errodajeak emozioei eta sentiberatasunari eman die garrantzia, gaian gutxi jantziak dauden ikuslegoarengana hurbiltzeko asmotan. Emaitza: produktu bitxia eta ezhoikoa. Altman beteranoak maixutasunez lortu du arte honen sintesia aizematea.

## IKASTAROAK

**Doako ikastaroa KZgunean**

KZguneak IT Kzgunea doako ikastaroa eskainiko du maiatzaren 31tik ekainaren llra bitartean. Interneten hasteko ikastaroa izango da, 20 ordukoa, 16 urtetik gorakoentzat. Besteak beste honako edukiak izango ditu: ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilatzaiieak, posta elektronikoa, Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera, bideo konferentziak, etab. Ordutegiari dagokionez, 18:00etatik 20:00etara izango da. Ikastaroan interesa duenak Kzgunera jo besterik ez du edo telefonoz deitu: 943 74 88 28. Kzgunea 16:00etatik 20:00etara dago zabalik.

**Perkusio eta doinu Afrikarrak**

Mendaroko In Leike Aisialdi eta Kultur Elkarteak perkusio eta doinu afrikarren ikastaroa antolatzeko asmoa dauka, Ikastaro hau egiteko interesaturik dauden pertsonak maiatzaren 26an, asteazkenean, In Leikek duen lokalean (Ludotekan) arratsaldeko 19:30ean izango den bilerara agertu beharko dute. Bertan hainbat gairen inguruan hitz egingo da: ordutegiak, materiala, prezioa, ikastaroaren iraupena, etab.

## JA1AK

**Ibilaldia 2004rako autobusak**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Ibilaldira joateko autobusak antolatu ditu Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Aurten, Leioan izango da Ibilaldia maiatzaren 30ean, domekan. Autobusak goizeko 10:00etan irtengo dira Elgoibartik eta itzulera 20:30ean izango da. Elgoibarko Izarran (Ubitarte, 4) eman daiteke izena maiatzaren 28a baino lehen. Edo honako telefonora deituta: 943 74 16 26. Prezioa 6 eurokoa izango da elkarteko bazkideentzat eta 9 euro bazkide ez direnentzat.

## OSPAKIZUNAK

**54ko kintoak**

Elgoibarren jaio, bizi edo Iotura afektiboak izan eta 2004an 50 urte betetzen dituztenek ekainaren 5ean egingo dute lagunarteko bazkaria. Joan nahi izanez gero, 75 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxaren kontu zenbaki honetan: 3035-0007-21-0071031200. Maiatzaren 21a izango da azken eguna. Informazio gehiago Maritere Arakistaini deituta: 943 74 45 16 (9:30etik 12:30era) edo Eloisa Zubiaurreri deituta: 943 74 13 97 (14:00etatik 20etara).

**49ko kintoak**

1949an jaiotakoek kinto bazkaria ospatuko dute ekainaren 19an, Sigmako jatetxean. Egunean bertan 13:00etan elkartuko dira argazkia ateratzeko Udaletxe aurrean. Joan joan nahi dutenek La Caixako kontu zenbaki honetan: 21004168772100091490 sartu beharko dituzte 55 euro. Ekainaren 10a baino lehen egin beharko dute.

**44ko kintoak**

44ko kintokoek aurten 60 urte bete edo beteko dituztela ospatuko dute ekainaren 12an. Sigma jatetxean izango da bazkaria eta bertan parte hartu ahal izateko lehenbailehen eman behar da izena. 40 euro sartu beharko dira Laboraleko honako kontu zenbakian: 007.1.03156.5.

## zine

**KARTELDEGIA**

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

**"Y entonces llego ella"**

21, barixakua: 22:15

22,zapatua: 19:30-22:15

23,domekia: 19:30-22:15

24,astelehena: 22:15

**"Peter Pan, Ia gran aventura"**

23, domekia: 16:30

"The **Company" (Z.K.)**

27, eguena: 22:15

**AR, Unzaga**

**"Troya"**

21, barixakua: 18:30-11:00

22, zapatua: 18:30-22:00

23. domekia: 18:30-21:00

24. astelehena: lb:30-22:00

25, martitzena: 18:30-22:00

26, eguaztena: 18:30-21:00

**I**[redacted]

**"tiiro** inesperado"

21, barixakua: l9:30-22:15

22, zapatua: 19:30-12:15

23. domekia: 17:00-19:30-22:15

24, astelehena: 1701-19:30-22.15

25. niartitzena: 19:30

26, eguaztena: 19:30

~ILRS:~rItztjl Iiirzk«7 1~nttil;,Idic~~7 .111ke4:11



## "Y entonces lleno ella"

Zuzendaria: John Hamburg.

Antzezleak: Ben Stiller, Jennifer Aniston, Debra Messing.

Reuben Feuffer ederto bizi da, gutxi arriskatu eta beti tentuz ibiltzearen ondorioz goraino heldu da bere lanbidean. aseguru etxe batean, alegia. Ezer arriskatzen ez bada, ezer ez da galduko da Reubenen esaldi gustukoena. Polly Princek beste ikuspegi bat du bizitzaren aurrean: noraezean ibiltzea gustuko du eta joko bat bailitzan hartzen du bizitza. Zorterik ezean beste zerbait prohatu beharko dela da bere Ieloa. Izaeraz eguna eta gaua modukoak izan arren, jai batean ezagutuko dute elkar.

ZINEA

# erretratu zaharra

2004-V-21



Aste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1944. urte inguruan, Eibarko Txaltxa-Zelai futbol zelaian ateratako argazkia da. Erretratuan ikusten dugun taldeak "Beti Gazte" zeukan izena. Egun honetan 1-0 irabazi zion Eibarko "Randas" taldeari, eta urte hartako torneoa irabazi zuen. Begira zelako oinetakoak dituzten futbolari hauek, denak abarketekin ageri zaizkigu.

Gogora dezagun nortzuk diren "Beti Gazte" taldeko futbolari hauek:

Ezkerretik eskumara: **Carlos Rebenga, Ignacio Betelu, Imanol Konde,** Juan Kruz Gabilondo, Jose **Maria Igartua, Gerardo Garate** (t) eta **Luis Arriola (t).**

---



***ESKERTZA***

*2004ko maiatzaren 12an, 80 urte zituela hil zen,*
*MANUEL GABILONDO UNZUETAren*
*anai-arrebak, ilobak eta gainerako sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





***ESKERTZA***

*2004ko maiatzaren 10ean, 87 urte zituela hil zen,*
*JOSE OLAZABAL IZAGUIRREren*
*seme-alabak, bilobak eta gainerako sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# ETXEBIZITZEN SALMENTA

ETXEBIZITZAK

APARTAMENDUAK

DUPLEXAK

LORATEGIDUN DUPLEXAK

GARAJEAK

MERKATARITZA LOKALAK



**MAALA BIZIGUNEA**









Salmenta bulegoo:
Bernordo Ezenorro, 2
**943 740 858**

Eraikitzailea: AMENABAR

Sustatzailea:
URTAGO PROMOZIOAK, A.I.E.



**lan etorkizuna gertuago duzu**

ATE IREKIAK
**Maiatzaren 26an**
18:30etatik 20:00tara

**AURRE MATRIKULA**
Ekainaren 1etik 9ra

Bergarako Migel Altuna institutuan, lan etorkizuna gertuago duzu!
75 urte daramatzagu kalitatezko profesionalak gertu-gertutik hezten.

Ikasle-iralcasle arteko harremana lantzen dugu, punta puntako azken teknologietara egokituta gaude eta gainera sekulako erraztasunak ematen dizkizugu zure ikasketak bertako zein atzerriko enpresetan praktikan jartzeko.



GOI MAILAKO ZIKLOAK
- Administrazio eta Finantzak
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Plastiko eta Kautxugintza

ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- Mekanizazioa (goizez eta gauez)
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Plastikoaren eta kautxuaren er-aldaketa
- Administraritza kudeaketa

943 76 24 9 I
943 76 38 40
w w w 1111 a {. C,

75 urte hezten

Zatoz eta ezagutu gure espezialitate eskaintza zabala!

AENOR ER

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
ibargaral I • 20570 • BERGARA

GARBINIETA IIVIANTENIMEN.P»......A.UTOEKAL,O.KAIRUA.,.

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GARBI eta PREST!




## ESKAINTM BEREZIA:

**PNEUMATIKOAK 4 X 3 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU**



**ESKUZ EGINIKO GARBI KETA**



**GARBI KETA AUTOMATIKO PUBLIKOA**



### HORREZ GAIN:

- OlioarEn Edo filtroEn aldakEta
- PnEumatikoEn aztErkEta Eta aldakEta
- BaiaZtEIl EtE EsekidurarEn aztErketa
- MantEnimEndu orokorra

## SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

**7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar** tr 902 103 287

Irrizmz3 rsrestone GOOD/YEAR